



Txirrindulari guztiek ezagutu beharreko 17 arau

ÁLEX FRUTOS

13/03/2022

LA VANGUARDIA

Bizikletaz ibiltzeak baditu bere berezitasunak. Txirrindulariek jakin behar dute zirkulazio-kodea eta, gainera, gehien eragiten dieten arauak. Hau da, herri edo hirietako kaleetan edo/eta herri bateko hirigunetik ateratzen direnean errepideetan.

Txirrindulari guztiek ezagutu beharreko arau nagusiak zein diren argi izateko, 17 arau garrantzitsuenak ikusiko ditugu. *(Momentuz lehehengo bostak aurkezten ditugu. Hurrengo asteetan besteak aurkeztuko ditugu).*

Alkoholik gabe

Normala denez, txirrindulariek autoen edo motoen gidariek zirkulatzen dutenean erabiltzen duten araudi bera bete behar dute (gehienez 0,25 miligramo litroko aire xurgatuan edo 0,5 gramo litroko odolean). Era berean, alkoholemia-kontrola egin behar dute, agintaritzak hala eskatzen dienean.

Mugikorrik gabe

Bizikletan ibiltzeak ez du uzten telefono mugikorra erabiltzen, noski. Eta ezin da bizikletaz ibili eta entzungailuak ere jarri. Alde horretatik, araudiak ez du beste ibilgailu batzuetako gidarien aldean ezer berezirik esaten.



7 urteko bidaiari gazteena

Lagun bat eraman daiteke bizikletan hiru baldintza hauek betetzen badira: bigarren bidaiariak 7 urte izatea gehienez, horretarako homologatutako eserleku batean joatea eta bizikleta gidatzen duena adinez nagusia izatea.

Argiak piztuta

Gauetz, azpiko pasaguneetan edo/eta tuneletan zirkulatzen den bakoitzean, argiak piztuta eraman behar dira aurrean eta atzean, ikusi ahal izateko eta besteek ikusi ahal izateko. Gainera, kasu horietan eta errepidean, 150 metroko distantziaz ikus daitekeen arropa islatzailea erabili behar da.

Bidegorria

Ez da nahitaezkoa, baina bai gomendagarria, segurtasunagatik, hirian eta errepidean bidegorrietan barna ibiltzea. Hori bai, erabil badaitezke.

